

- Ongi moldatu dugu. Bai zuk inen tozuta bai bere kontuak berak...
ederki ino bai. Ta horixe erran bantia, bantia horixe...
(larakoseta bada inen halako belai xakar bet) ta hartu...

IZEN ABIZENAK : ESTEBAN IRIGOIEN IRIARTE.

ADINA : 72 URTE.

HERRIA : BERROETA (BAZTAN).

TRANSKRIPZIOA:

Egunon, egunon Lizarrako jende zientifiko hoieri. Hoiiek eskatzen dakute
zerbaitere : Baztango kostunbriak, ogitura zaharrak handik edo hemendik bildu ta
nola egiten dugun gure hizkuntza. Bai, Berrota da badakizue herri bat. Herri hoi, hoi
ez da dudaik Baztango herri politena, politena. Guk dugu ondoan alde batetik
"Almandos" ta bertzik Amitz. Gure amari zenak erten zinon zuk:

-Aizu ama, erran : Viva España!

Ta erten zuen

- Viva España!
- Erran: Viva Berrota!
- Viva Berrota!
- Ta erran : Viva Almandoz.
- Ez, ez, ez. Hoi pekatu de.

Zerbaitere bazagon hor, beheko ez dakit pentsamentu hortan, gure xoko hartan ,
bazagon halaxeko grina edo halako ausketa zerbait.

Bai, gure herria hantxe dago Baztanen, herri xabal - xabala, trunkil - trunkile. Han
behiak goaten diren beren tokitik, eta xakurrak ere beren tokitik ta gizonak ere bai,
ta andiak ere bai. Bada, ez dakit ze, ze erran matzueke nik, ze erran natsueke
ezpaitakit. Goizetan jeiditzen zara goatzetik eta goaten zara :

- Egunon! in duzu lo?

Ta

- Bai, in dut, zuk ere bai?

Hori erten da beti, ta :

- Ze gosiak edo nola?
- Bai, badakizu, pisket sabela ustuxe, ustuxe ta zerbaite hartuko nuke ba.
- Hor daukezu oporrian esnia. Edan, edan, edan suelto. Ba, esnia badugu te izein dira gutiago dutenak.
- Bai, bai, bai hoi seguru.

Orduen :

- Zer moduz? Ze, nora goan da aite?
- Aite? Ardietara.
- Ardietara eh?

- Bai, antxu txuk badauzkegu hor behitiko belai txar hartan, ta gero xerriek
ere bazkatu behar ta gure bizie holaxe da ta.

- Bai goizian izen zaigu apeza, bisite in daku.

- Ah bai, ta zer dio? Gizon ederra dago apeza.

- Bai, bai sotan beltzarekin hemen torrak mukue ta hemen gartuik, ba esnia
edan dik eta gero koñak kopa bat ere bai.

- Ongi moldatu dugu. Bai zuk iten tiozu bai bere konbenientziek bai; bai, bai ederki iñe bai. Ta holaxe, orain banaie, banaie hortxe gaineko larrakosetara, (larrakoseta bada han halako belai xakar bet), ta hantxe pisket aai bezarkot sasi mozten ta hola.

Gero gehienian beharra izeten da hango lanik handiena, gogorrena. Beharrak in erten da, pizerra ere ez da erten "afaitatu", hoi Estellan ertaute : Guk erten dugu Pizerra in, beharrak in eta amodioa ere in erten da. Eta orduan beharrak, beharrak maten daku, maten zakun orain ia badakizu, oraiko tresna hokin bau..... ba ustei ez duzuleik beharra denak etxean. Gero arto, arto denboran, artoa forratu gero banabarrak bildu ; gero gaztainak ere bildu. Gaztainak oinik bakire, han gaztain aunitz badago ; hantxe galtzen dire ez dio norik ere kasuik iten, baino gaztain aunitz bada gure herrien. Gure aite zenak izeten zuen kapritxo haundie, ba sagarrak eta plantatzen zituen belai baxter hoietan eta ebasten zazkuten baino ba.... Gure aitek erten zuen : ~

- Ebatsi diztek, nahi baitek bai. Ona duk, on daizuela denei, ba guk ineko sagarrak norbaitendako ongi tordo tuk.

Bai hiketan aitzen gara bata bertziaikin.

- Nora goiaie?

- Ni itxera naiek

- Hi ta muturre zikine daukek (ez) eiaiz garbitu, urde alferra!

Ta hoi egunero entzuten den gauza da.

Besteak, bestak legenago San Martinek ziren. Oi! nik San Martinek zautu tut, goizetik txistulariek tortzen ziren, gure karriek arintzen ziren zeruen bezala. Ta hantxe xiotue jo ta gero Baztangopak hoi bai, baztangopak izeten zen "kapitulo 3 entzal" gure bizien bai. Gero xikirua, xikurua iten ginon ta:

- Ona ziagok zikiru hau eh?

- Bai, ño! gizena iuek.

- Bai gizena ziagoken! Bai, orain hi gizenduko haiz.

- Bai, zortzi egunteko jakie badiet itxian orain egunero fanez eta.

Gero piper - opilek ere iten ziren piper - opilek. Gero erregetan ta han eguerrietan ere bai iten dire halako itxetan ibiliz, urtetxak, urtetxak eskatzen ta kantatzen da:

**"urte berri berri
zer dakarrazu berri
uraren gainan
pakea ta osasuna
urtetx, urtetx!! "**

Hori kantatzen da piska bat eta jendiak botatzen tu, hak erten dutelaik kanpotik (haurrek) urtetx, urtetx, brotatzen zaizkiote ba... ziltxaurrek aneratsago, pisket fauntxo hoiek igual hamar sosekuat , lehenago, eta bisosekuat ; orai ez dakit, orai, orai ere uste dut "pastelak" eta (noski) botatzen tuztela.

Gero jende, jende aunitz kanpora goan da gure horritik, baino baita ere orai lau edo bortz matrimonio ere badire. Nornbaitek ere oinik bere zainak biletzen tu, eta

